

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Erregistratutako langabetuen kopurua jaitsi egin da uztailean, 26 langabetu gutxiago, eta langabezia 48.787an kokatu da Nafarroan

Langabezia-tasa% 0,05 jaitsi zen eta kontratazio-kopurua aurreko hilekoarekin alderatuta gehitu egin da, 1.148 gehiago

Jueves, 02 de agosto de 2012

[Nafarroako Enplegu Zerbitzuko \(NEZ\)](#) agentzietan erregistratutako pertsona-kopurua 48.787 zen uztailaren amaieran; horrek langabezia-tasa aurreko hilekoarekin alderatuta %0,05 (26 lagun) jaitsi zela adierazten du, zeinetan, langabetu-kopurua 48.813 lagunekoa zen. 2011ko uztailekin alderatuta, erregistratu den langabezia-tasa 7.043 lagunetan gehitu da; horrek %16,87ko gehikuntza izan duela adierazten du, [NEZaren enpleguaren hileko estatistikaren](#) arabera.

NEZan erregistratutako Nafarroako lantegietako kontratu-kopurua 20.232 koa izan zen eta horrek, ekainekoarekin alderatuta, 1.148 kontratu gehiago egin direla esan nahi du.

Maria Isabel Garcia Malo, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari-kudeatzaileak, egin duen balorazio honako hau izan da: "jaitsiera txikia izan bada ere, erregistratutako langabeziaren datuak bosgarren hilabetez jarraian jaitsi dira. Horrela, urtarrilaz geroztik, 1.362 lagunek utzi dituztela langabezia-zerrendak adierazi du eta joera horrekin jarraitzeko, enplegurako politika aktiboetara eutsi behar zaiela".

Enplegurako agentziak, Tuteran 133 pertsonekin (%1,44 gutxiago), Agoitz 44 pertsonekin (%-4,09), Lodosa 22 pertsonekin (%-1,33), Lizarra 11 pertsonekin (%0,44% gutxiago) eta Tafalla 4 pertsona langabetu gutxiagorekin (%-0,13) dira hilabete honetan erregistratutako langabezia gutxituta ikusi duten Enplegurako Agentziak. Beste aldean daude, alegia, langabetuen kopurua gehitu zaie, honako hauei: Iruñea, Altsasu eta Doneztebe, hurrenez hurren 160 langabetu (%0,69 gehiago), 70 (%1,37 gehiago) eta 9 (aurreko hilean baino %0,76 gehiago).

Sektore ekonomikokoa, langabezia zerbitzuen sektorean soilik gehitu da, 237 lagun gehiago, hirugarren sektoreko langabetuen kopurua 28.863 izaki. Aldiz, gutxitu egin da industrian (67 lagun), eraikuntzan (61 lagun) eta nekazaritzan (55 lagun gutxiago). Gainera, 80 lagunek beren lehenengo lana bilatu dute uztailean.

Azpisektore ekonomikokoa, osasun-jardueratan (101 lagunekin), lorezaintzan (90 lagunekin) nahiz motordun ibilgailuen fabrikazio-industrian (84 lagun gutxiago) eta elikadura-industrian (42 langabetu gutxiago)

izandako jaitsiera nabarmentzen da. Aldiz, ordea, hezkuntzan jasandako gehikuntza nabarmentzen da, non, uztailean, 335 lagun erregistratu diren arlo horretako enplegu-eskatzaille gisa.

Sexuaren arabera, erregistratutako langabezia aurreko hilabetearen gain, 24.769 emakumekoa, %0,6ko gehikuntzarekin, (146 emakume) eta 24.018 gizonezkoa, %6,9ko jaitsierarekin (172 gizonezko) izan zen. Adinaren arabera, 25 urtetik beherako 134 gizonezko eta 25 urtetik gorako 37 izan dira hilabete honetan langabezia-zerrendatik atera direnak. Aldiz, 25 urtetik beherako emakumeen artean langabezia 16 lagunetan gutxitu da, bestalde, 25 urtetik gorakoetan, 162 lagunetan gehitu da, hilabete honetako langabezia-zerrenda gizenduz.

Adin-taldeka, langabezia, batez ere, 25 urtetik beherakoen artean jaitsi da, %3ko jaitsierarekin (150 gazte gutxiago langabezia-zerrendan), 4.877an kokatuz (2.153 emakume eta 2.724 gizon). Bestetik, 25 urtetik gorakoen artean, langabezia %0,29 gehitu da (146 lagun), 43.910ean kokatuz (22.616 emakume eta 21.294 gizon).

Kontratazioa

Iraupenaren arabera, uztailean egindako 20.232 kontratuetatik 1.021ek (%5,05) izaera mugagabea zuten eta 19.099k aldi baterako izaera; gainerako 37ak trebakuntza-kontratuak izan ziren. Horrela, aurreko hilabetearekin alderatuta, aldi baterako kontratuen kopurua 1.310ean gehitu zen, aldiz, izaera mugagabeko kontratazioen kopurua 125ean gutxitu zen eta 37an sinatutako trebakuntza-kontratuena.

Sexuaren arabera, 9.803 emakumek (aurreko hilean baino 186 gehiago) eta 10.429 gizonek (ekainean baino 962 gehiago) sinatu zuten kontratu bat. Adin-taldeka, kontratazioa 25 urtetik beherakoen artean erregistratutako 5.118 kontraturen (aurreko hilean baino 818 gehiago) 25-44 urte bitarteko langileek sinatutako 11.436 kontraturen (ekainean baino 285 gehiago) eta 45 urtetik gorako pertsonekin sinatutako 3.678 kontraturen (45 kontratazio gehiago) artean banatu zen.

Jarduera-sektoreka kontratazioa honela gehitu da: zerbitzuen sektorean (16.376 kontratu, ekainean baino 611 gehiago), industrian (2.275 kontratu, 388 gehiago aurreko hilean baino) eta nekazaritzan (774 kontratu, ekainean baino 161 gehiago). Aldiz, hilabete honetan kontratazioa murriztu egin da eraikuntzan, 12 kontratazio gutxiagorekin.